

La movilidad en  
tus manos



Mugikortasuna  
zure esku

Proceso participativo en torno al Plan de Movilidad  
Urbana y Sostenible de la Comarca de Pamplona

Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko  
Planaren inguruko prozesu parte hartzailea

**IRUÑERRIRAKO HIRI  
MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO  
PLANA (IHMIP) FINANTZATZEARI  
BURUZKO PROPOSAMENA**

IHMIParen Proposamenen dokumentu bat (lehen bertsioa, v1) dago, Azpibatzorde Teknikoak onartutakoa.

Dokumentu horrek finantzaketa-irizpide hauetara egokituko beharko du:

**1.** IHMIParen v1 bertsioak jarduketa-multzo bat proposatzen du, 10 urteko epean garatu beharrekoak. Haien aurrekontu globala 378 milioi eurokoa da, eta haietatik 5 milioi azterlanei dagozkie, 359 milioi ezartze-inbertsioei eta 23,6 milioi aldi horretako mantentzeari eta operazioari.

**2.** Nolanahi ere, kontuan hartuta osorik gauzatzeko epea oso luzea dela, aipatutako zenbatekoa oso handia dela eta dauden ziurgabetasunak, malgutasuna eman behar zaie IHMIParen proposamenei, denboran zehar gauzatzeko aplikatzeko unean dauden inguruabarretara egokitzeko aukera izan dezan.

Horretarako, IHMIParen 1. fase programatu bat zehaztu beharko da 2020aren amaiera arte (2021eko aurrekontuak egiteko data), aurrerago zehazten diren aurrekontu-konpromisoaren mailara eta finantzaketa-aukeretara egokituta. IHMIParen iraupen osora iritsi arte gelditzen den aldia fase ez programatutzat joko da, eta etorkizunean programatuko da, 1. fasearen garapenaren arabera.

**3.** Administrazioen finantzaketa-aukerak –eta 1. fase programatu horrek aukera horietara egokitu beharko du– 5 milioi eurokoak izango dira, irizpide hauen arabera:

- v1 bertsioaren dokumentuan jasotako azterlanei dagozkienak izango dira egingo diren jarduketak eta gehieneko zenbatekoa 5 milioi eurokoa izango da.

Bereziki, aurreneko fase honetan, planteatutako estrategien gaineko azterlanak egingo dira inbertsio handiago batekin (EHGaren prestazio handiko sarea, oinezkoentzako ibilbideen metropoli-sarea, bizikleten ibilbideen metropoli-sarea eta aldirietako aparkalekuen sarea), aukera desberdinak baloratuta, eta bai planean aurreikusitako jardueren inpaktuari buruzko azterlanak ikuspegi desberdinetatik, administrazio publikoen aurrekontu-ekarpena alde batera utzirik plana finantzatzeko iturri desberdinei buruzko azterlanak eta, aurreko azterlanen bilduma gisa, planaren ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren gaineko azterlan bat ere.

**4.** “IHMIParen kutxa bakarra” sortu beharko litzateke, parte hartuko duten administrazioek emandako baliabideek elikatuko luketena, eskusiboki lehen fase honetarako ezarritako norainokoarekin, eta etorkizuneko faseetara eraman daitekeen irizpide moduan ulertzeko aukerarik gabe, banaketa-arau hauen arabera:

- Nafarroako Gobernua: azterlanen finantzaketaren %50, dirulaguntzen deialdi desberdinen bidez finantzatu ezin dena.
- Udalak: gainerako %50a. Udalen arteko banaketa honela egingo litzateke: alde batetik, zati finko bat (guztiaren %20), udalerrri guztien artean ordainduko luketena zati berdinetan; eta bestetik, zati aldakor bat (guztiaren %80), udal bakoitzak bere biztanle-kopuru ofizialaren arabera ordainduko lukeena, proportzioan.

**5.** Denbora-helburu hauek ezartzen dira:

- 2020ko ekainaren 30a baino lehen eginda egon beharko dute planteatutako azterlan guztiak.
- 2020ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu eta azaldu egin beharko zaizkie txostenak IHMIPa

sinatu duten erakundeei. Aldi horretan, konponduta egongo dira erakunde sinatzaileek aurkeztu dituzten galdera, zalantza eta azalpen-eske guztiak.

- Erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute 2020ko abenduaren 31 baino lehen akordioa lortzeko, bai epeetan, bai inbertsio-bolumenetan, bai eta proiektuaren finantzaketan ere, planaren garapenaren bide-orri ziurtatua eta errealista ezartzeko aukera emango duena.
- Erakunde sinatzaileak behartuta egongo dira hartutako konpromisoak sartzera beren aurrekontuetan, 2021eko ekitaldiari eta hurrengoei begira.

**6.** IHMIParen gauzatze eraginkor eta integratua bermatzeko, mugikortasun-planaren metropoli-bulego bat edo eginkizun horiek dituen mugikortasuneko metropoli-erakunde bat sortuko da. Erakunde hori "IHMIParen kutxa bakarraren", izendatzen zaizkion aurrekontuz kanpoko baliabideen eta biltzea lortzen den iturri desberdinetako dirulaguntzen bidez finantzatuko da.

Bulego horren funtzionamendu-aukerei dagokienez (IHMIParen proposamenen v1 dokumentuaren 7.1 estrategian jasotakoak (20. atala)), proposatzen da egitura zentralizatu bat hartzea (1. aukera –erakunde juridiko berria– edo 2. aukera –Mankomunitatea–). Horretarako, egokiak diren erakunde- eta administrazio-pausoak eman aurretik, aukera desberdinen gaineko txostena egin beharko da, haietako bakoitzaren analisi juridikoa eta ekonomikoa eginda.

**7.** 1. fase programatua sustatu eta gauzatzeko, eta kontuan harturik oraindik ez dagoela mugikortasun-planaren metropoli-bulegorik, esku hartuko duten administrazio guztien arteko lankidetzaren hitzarmen berri bat formalizatzeko premia planteatzen da, fase horretan zehaztutako azterlanak kontratatatu eta egiteari estaldura emango diona.

Hitzarmenean zehaztuko diren azterlanen finantzaketa 4. klausularen arabera egingo da.

**8.** Azpibatzerde Teknikoari agindu behar zaio IHMIParen Proposamenen v1 dokumentuan zehaztutako azterlanak berrikusteko, akordio honetara egokitzeko.

